



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Saiburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

EBAZPENA, 2019ko azaroaren 13koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpen-proposamena ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2019ko uztailaren 9ko aginduaren bitartez (2019ko uztailak 24ko EHAA), 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako Ikasiker lankidetzak beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2019ko uztailaren 9ko Aginduak 13. artikuluan xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipaturako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak, II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak eta III. eranskinean ordezkoen zerrenda proposamena osatzen dutenak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 13a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

Miren Artaraz Miñón